



MUSIC BOX FESTIBALA 2016

PROGRAMAZIOA

Musika kaxa gisa, hots, musika independentearen egungo agertokian nabarmentzen diren tokiko eta nazioarteko artistekin kultur ekitaldiak programatzeko ontzi gisa balia daitezkeen hiri eremuak erakutsiko dizkiguten 12 kontzertu.



2016ko urtarrilaren 31 > Ontzigunea

astera doa 2016ko nabigazioa, eta baita MUSIC BOX BESTIBALA 2016 ere. Ontziola batetik hasiko dugu gure soinuen bidaia. BILL RYDER JONES taldearen folk distiratsuaeren soinuetarantz egingo dugu bidaia, britainiar uharteetatik. Itsasontzian zein ontziolako hainbat gunetan, horiekin batera jardungo du PERLAK talde zarauztarrak.

BILL RYDER JONES, PERLAK



2016ko otsailaren 26a > Bilbo plaza

Bizilagunak euren hiri ingurunea aldatzeko nola mugitu diren ikusiko dugu...

Bilbo plazako taberna eta liburu dendetan marraztutako eta Arkitektura Eskolak gauzatutako proiektu baten bidez, iturri zirkularra eszenatoki bihurtzea lortu dugu; zehazki, etorkizunean egingo diren ekitaldietarako ondare gisa geratuko diren tramex egiturei esker.

Zeinahi kale, plaza edo iturri izan liteke eszenatoki naturala. Baita ezinezkoenak diruditenak ere... Zuhaitzei argiak jarriko dizkiegu, espazio magikoa sortzeko... Igaroleku izatetik toskanar festa bihurtzera, koloretako bonbillei esker.

CORIZONAS ETA BULLET PROOF LOVERS

Inguruko tabernek ere esku hartuko dute plazan.



2016ko martxoaren 19a > Zorroagaren Eliza

CHRIS ECKMAN (THE WALKABOUTS) & CHANTAL (SLEEPINGDOG) + PET FENNEC

The Walkabouts mitikoen abeslariak eta Sleepindog taldeko abeslariak Donostian ezagutu zuten elkar, duela bost urte Lugaritzen egindako Donostikluba zirkuituko kontzertu batean. Orain, elkarrekin egindako proiektua aurkeztera datozkigu, eta programa horrek proposatu nahi diguna ikusarazteko helburua dute: artisten arteko topagunea izatea, hain justu.



2016ko apirilaren 10a > Donostiako portuko lonja

Bost arrantzontzi baino ez dira geratzen... oraindik ere arrantzuan aritzen direnak... Donostiako portuaren historia: portutik barnealderantz eraikitako hiria da Donostia. Hormetan planoak ikusiko ditugu. Bertan eraikiko da omenaldi gune bat.

Britainiar itsasoetatik etorritako taldea izango dugu (**irailaren amaieran esango dugu izena**), Zarauzko **LES MARINES** DJs taldearekin batera.



2016ko apirilaren 16a > Miramongo anfiteatroa

Zergatik ez du inortxok ere erabili?

Espaziorik onena, atzealdean baso argiztatua duela, nazioarteko rockak eman duen talde bikainenetako baten pasarte hipnotikoez gozatzeko.

TINDERSTICKS + FRANK



2016ko ekainaren 26a > Uliako Lorebaratzak

Donostia: tokiko taldeen mintegia. Talde guztiek joko dute ur biltegietako eta udal mintegietako lorategi eta berotegietan.

ALBERT CAVALIER, AMOR DE TOKYO, VENTURA... Zerrenda luzea da, tokiko musikaren inguruan egingo den landako jardunaldia osatuko duena.

Eta jaiari amaiera berezia emateko: **THE COUP** taldea.

Oaklandeko hip hop taldea da The Coup, mezu politiko garbia zabalitzen duena. 1990. urtean sortu zuten "Boots" Rileyk eta DJ Pam The Funkstressek. Pixkana, beste kide batzuk gehitzen joan ziren, nola diskoak grabatzeko, hala zuzeneko emanaldietarako. HBOko sailetan entzun ahal izan ditugu talde honen abestiak; esaterako, 24/7 Flyers Rangers sailean. Eta baita bideojokoetan ere (hala nola NBA Live 07) edo "Ride The Fence" abestia, adibidez, EAren skateboarding jokoan. Eptaph zigiluarekin argitaratu zuten, 2012. urtean, euren azken diskoa: "Sorry To Bother You".



2016ko uztailaren 8a > Gabarroia, portuan. San Telmo plazako balkoia.

Kontzertua uretan, kaitik bertatik ikusteko moduan. Pirineos Sur festibaleko eszenatokia itxuratuko dugu, baina lehendik daukagun azpiegitura bat erabilia: gabarroia.

Opari batekin hasiko dugu uda: kontzertua, kaian, **NIMU & PRIMO eta DISCO BAMBINOS** taldeen elektronikarekin. Kontzertu horrek jarraipena izango du San Telmo Museoko balkoian, plazari begira dagoenean: DJ gune handi bat izango dugu, eta **EZUZTEA** Djaren lanaz gozatzeko aukera izango da.



2016ko abuztuaren 6a > 2016 terraza & Torres Arbiza terraza & Tabakalera terraza

Garaieratik Donostia ezagutzeko musika, terrazaz terraza egindako ibilaldi batean... Folka eta egile sentiberatasuna Clem Snide, The New Raemon eta Eraulen eskutik. Nork esan zuen soilik Beatlesak zirela terraza batera igotzeko gai?

Zehazteko borondate ariketa ugaritan, **CLEM SNIDEren** musikari 'country alternatibo' etiketa jarri izan dio sarri askotan kritikak. Taldea bere sortzailearen (Eef Barzelay) bertuteen ispilu gardena da. Gizon adimentsua eta sentibera da Barzelay; ele ederrekoa, samurra, ironikoa eta eztenkaria. Kantuen bidez, bere buruari eta mundu osoari azalpenak emateko jaioa. Eta gure gozagarri, horretan ari da 90eko hamarkadaren amaieraz gero, etenik gabe, trebetasun hutsezinez.

CLEM SNIDE, THE NEW RAEMON, ERAUL



2016ko irailaren 10a > Amarako parkea

80ko hamarkadan, bizikletentzako eta patinatzeko zirkuitu bat zegoenean, parke horretan kontzerturen bat egin zen. Garai hartan parkean ibiltzen ziren gazteak guraso dira gaur egun, eta parkea haurrentzako parke bihurtuta dago.

Garrantzitsua da familiaren aisian ere kultura txertatzea.

TEMPLETONek belarretan interpretatuko du Hora de Aventuras saioaren musika, eskolarako itzulera ospatzeko.

TEMPLETON taldeak jauzi egin du kantu pop distiratsutik bestelako norabide batzuetara; hots, psikodelia enigmatikoko korronteez eta 80ko hamarkadara garamatzen konponketa eta patroir erritmikoz pinpirindutakoetara. Sekuentziatzaileak, sintetizadore dirdaitsuak, distortsioz aireztatutako gitarrak eta koru oroitarazleak; horiek dira bere ezaugarri nagusiak.

Lou Reed eta Talking Headsen 70eko ekoizpenak eta Moroderren 80ko soinu atmosferak daude jasota kantu bilduma horretako erreferenteen zerrendan. Baita hurbilekoagoak zaizkigun batzuk ere: Radio Futura, yeyé tradizioa eta espainiar sustraiko pop kantua. Guztiak ere dinamika garaikide eta pertsonal batera egokitutakoak, eta horiek osatzen dute Templetonen musika unibertso berezia.



2016ko urriaren 13a > Unibertsitateko plaza & Arkitekturako eraikina

Rocka beti izan da ezkonformista, mugimendu iraultzaileetan bilatu du babesa eta unibertsitateetatik eman izan ditu erantzun sozialak.

Antzokiak sortu aurretik, rockak bere hastapenak izan zituen unibertsitateetako ekitaldi aretoetan... Indarrez hasiko dugu ikasturtea... Kontzertuak Arkitekturako terrazan, teilatuan, ekitaldi aretoan eta parkean.

LOS PUNSETES, SVPER, ESKOLAKO TALDEAK...



2016ko azaroaren 19a

(falta traducción)



2016ko abenduaren 17a > Euskotren geltokia

Ibilbidearen amaiera. Jendea Easo plazako EUSKOTREN geltokian jaso, eta toki ezezagun batera eramango dugu. Trenean, Euskal Herriko lokomozioaren historia azalduko zaie. Burdinbidearen Historiari buruzko datuak eta argazkiak biltzen dituen flyerra. Hantxe egingo da azken kontzertua, nazioartean balio handia duen tokiko musikarekin. Taldekideek begi keinua egingo diote etorkizunari, lekukoa hartu, eta 2017rantz joango den bidaiari ekingo diote.

BELAKO